

**GRAMATIKAKO ZERTZELADA BATZUK  
FRAI BARTOLOMERENGAN (II)**

Aurreko alean zintasiari dagozkion zenbait gauza aztertu genituen. Oraingoan morfologiari ekingo diogu, zehatzago esanik, zenbatzaileei.

- **Bat** zenbatzailea ugari samar ageri da haren testuetan. Zenbatzaile honen oraingo erabilera, gehiegizkotzat jo izan dute adituek. Alabaina, Bartolomeren erabilera, bizkaieraz mintzatzaren diren euskaldun zaharrentzat, ez da batere bitxia horretan... Ez dugu zertan zehazturik hau, baina bizkaieradunon euskal senarekin guztiz bat dator gure karmeldarraren erabilera.

Era mugatuan ere egoki darabil:

*Bada, **batac** eragozten ditu gurari batzuc ta **bestiac** beste batzuc (Icas. II, 244).*

*Gurarijetati oratuten deutsa diabrubic guizonari edo emacumiari. Berac iracoi edo sortuten ditu gueure gurarri deungaac, **batian bata** ta **bestian bestia** (Icas II, 250).*

- **Bi** Bizkaiko joerari eutsiz, dagokion izenaren ondorik erabiltzen du, baina **bi** zenbatzailedun sintagmak erakuslea duenean, izenaren eta erakuslearen artean kokatzen du zenbatzailea:

*Beste aldeti, paltsaquerijac, engainubac, naastiac ta arpeguiera* **bi** lagun artian darabiltzan cristinauba, ez dau inoc icusi gura (Icas. I, 44).

*Gauza* **bi** escatuten deuschuz, bada, Jaungoicucac aguindu onetan (Icas. I, 152).

*Alan, ez dira bat eguinac azqueneco aguindu* **bi** *oneec* bestiaquin (Icas. II, 242).

- Zenbatzaile zehaztugabceetatik **batzuc**, **asco**, **guichi**, **ainbeste** (onenbeste), **ainbat** agertzen dira haren idazkietan; **beste ainbeste** esapidea darabil eta ez **beste orrenbeste**; egia esan, erakusleen artean hirugarren gradukoa erabiltzeko joera du; **asco**-k ekialdeko **aski** edo mendebaldeko **nabiko** ren adiera ere badu harengan. Dena dela **naico** ere badator haren testuetan. **Zenbait**, ostera, ez du erabiltzen. **Gueijenetan** adizlaguna erabiltzen du noizean behin, baina askoz ere sarriago singularrean, **gueijenian**. **Guichi** konparaziozko perpausetan maiz erabilia da, baina izenondo ere bada harengan testuinguru batzuetan:

*Beste ocasinoe* **batzuc** guztientzat dira ocasinotac (Icas. II, 276).

*Senaile* **batzuc** euren izatez aitu eraguiten davee, aguiari daveenaz gainera cerbait (Icas. III, 6).

*Beste senaile* **batzuc**, euren ez davee aguiari daveenaz gainera ecer aitu eraguiten (Icas. III, 6).

*Ta alan beste senaile aintzat artu* **asco** (Icas. III, 7).

*Sacramentubetan bagoz gauza* **asco**, eleisa guizonai baccaric jagocuezanac (Icas. III, 5).

*Alan beste* **ascoc**, ezer bere ez dirian gauzac artuten dituee diversinoetzat (Euscal-Errijetaco... 28).

**Asco = nabiko:**

*Beste ascoren artian ene Ama Santa Teresa bat da* **asco**, mundu guztiari aleguere izaten eracusteco (Euscal-Errijetaco... 23).

*Inoc eguingo baleu promesa ez jaquinian, erromedija egunian santuba edo santia visiteco, uste dot egun atan esandan moduco piesta ta dantza nasaija an eguitia **asco** dala, promesa beste egun bateraco isteeco, ocasinoera ez juatia gaiti (Euscal-Errijetaco... 108).*

*Ezcondu asco, celan ezcondu, alan vici, baque chaarra, gozo gaistua, celo minverac, alcarren gorrotua ta cer esana **naicua** echian dauqueela (Icas. III, 328).*

*Impernubac inos esaten ez daven leguez: **naicua** eguin dot edo asco da, ezbada beti daguan leguez esque ta tiraca, alan, dino santubac, daguala codicijotsubaren vijotza inos diruz naicotu bagaric, beti esque ta beti tiraca (Icas. II, 127).*

*Imini daigun exemplu bat, ta ez **guichitan** jazoten dana (Icas. I, 9).*

*Ta au gaiti dagoz cristinau **guichi**, Jaungoicua bene benetan ameeetan daveenac (Icas. I, 39).*

*Ta oraindino **guichiago** nai dau, bere eche aberatsian sartu daquijon guraso pobria (Icas. I, 50).*

*(**guichi** izenondoa): Orduban alaco votozco gauza **guichi** á ez eguitia, pecatu arina edo veniala da (Icas. I, 136).*

*Beste pecatubac onegaz bat eguin ezquero, gauza **guichija** dira (Icas. I, 142).*

*¿Ez dagoz asco, bai guizonac ta bai emacumiac, edozein naibague jazoten jacuenian, gauza **guichija** bada bere, auan artutia meraciduten ez davena bada bere, maldecinoteca luurrari icara eraguiten deutseenac? (Icas. I, 147).*

***Ainbat** eta **ainbeste** ugari darabiltza, baina **onenbeste** hiru bat aldiz baino ez da agertzen; bitan konparaziozko perpausa da, **onenbeste** baino ... -ago egiturakoa:*

*Au da lagun bic edo gueijagoc alcar artutia, eurac bacarric salduteco dauqueen gauzia, **onenbeste** baino merquiago batec bere ez salduteco (Icas. II, 118).*



*Edo da alcar artutia, eurac bacarric erosico daveen gauzia **onenbeste** baino goraago batec bere ez erosteco (Icas. II, 118).*

*Ta **onenbestegaz**, iracurlia, aintzat artuten banozu, zeure adisquidetzat neure buruba ezautula, esquintzen deutsut vijotz prestubagaz (Icas. I, X).*

**Ainbeste**-ren antzeko testuinguruetan ageri da **allaguina** ere, baina badu ñabarduratxo bat: *hainbesteraino*, *horrenbesteraino* edo antzeko adiera du, gaztelaniazko “hasta tal punto”, “hasta tal grado”:

*¿Cec, bada, **allaguina** engainau ta itsutu ditu ceubeen umiac? (Icas. I, 14 serm.).*

*¿Cec **allaguina** engañau ta itsutu ditu, bada, ceuben seme alabaac? (Esk. 249).*

Zenbatzaile zehaztugabeekin zerikusia dutenak dira kopurua adierazten duten zenbait izen, esapide bihurturik eta adizlagun nahiz izen legez erabiltzen direnak: **apur bat**, **pusca bat**. Bartolomek sarri darabil azken hau; batzuetan adizlagun legez eta beste batzuetan izen legez:

***Pusca bat** eguiten asi ezquero, gueijago gura dozu (Icas. I, 158).*

*Inudiac subaren onduan ichi evan seina arduza guichigaz ta erre jacon arpeguija **pusca bat** (Icas. I, 190).*

*Estomaguco gacha gaiti ta bere sarritaco gaixuac gaiti edan daguijala ardao **pusca bat**, esaten deutsa (Icas. I, 269).*

- **Gutziz, chito, entero** darabiltza maila adberbioen artean; ezezko perpausetan **bapere...** (**ez**) darabil. Hau kategoria gramatikal ezberdinetakoa izan ohi da, testuinguruaren arabera: aurrekoak bezala, maila-adberbioa, izenondo nahiz aditzondoari dagokiola; aditzondoa, aditzari dagokiola eta azkenez, ize-nordaina. Maila-adberbioak, jakina denez, izenondo eta adi-

tzondoekin agertzen dira. **Entero** maila-adberbioaz gain, adberbio edo aditzondo ere bada noiz edo behin. **Osoro** eta **chit** behin bakarrik agertzen dira obra osoan barrena; azken hau eskuizkribuko bertsoan. Euskal Herriko mendebaldean gaur egun hainbeste erabili ohi den **oso** ez du erabiltzen behin ere zentzu horretan. **Sobre** formak ere honen antzeko erabilera du; maila-adberbio izan daiteke nahiz adberbio soila:

*Sermoe **gutziz** orraztu baten zatijac ta zatijeen zatijac ez badaucaz bere; izate oin onecua, ituraco sailaren zucentasuna, errazoiaren indarra, ta eracutsi elduba ez ditu palta (Icas. I, VII).*

*Jaungoicuaren legue santuba **gutziz** da errazuazcua, zuzena, erraza ta guere oneracua (Icas. I, 20).*

*Gurasuac jaquin biar davee, / **chit** ondo daveela merecidu, // Vmiac gaisqui azi ezquero, / Isilic egon ta padecidu (Esk. 262).*

*Au **chito** gauza ona da, jai santuba gordeetaco (Icas. I, 182).*

*Seme alabei gurasuac zor deutsen aziera onaren contra la **chito** deungaro eguina da, lau bost urtera eldu ezquero edo leenagoti, umiac eurequin oian eratzotia (Icas. I, 191).*

Batzuetan **entero** adizlaguna da eta ez maila-adberbioa. Lehenengo adibidean, esaterako:

*Ta au gaiti nai davela **entero** diabrubac, lotsarizco pectubac guc eguitia (Icas. II, 41).*

***Entero** contu gogorra, dino, artuco jacuela juezai (Icas. II, 165).*

*Descuiduan izan arren bere, ustez uste bagaric izan arren bere, bere ardura bagatasunez ta **osoro** beguiratu ezaz eguin badau erijotzia, pecatu da (Icas. I, 238).*

*Tratu utsa bere, lagundu bagaric, **sobre** da liorra (Icas. II, 128).*

*Nundi eta celan oi dirian piestaraco jantzijac eta galaac emacume ascoren soinian, **sobre** daqui mundubac (Euscal-Errijetaco... 58).*



*Ta orregaiti **bapere** obaac ez dira (Euscal-Errijetaco... 155).*

*Aita edu eguindaco seme alabac dagoz asco, dotrinaric **ba-**  
**pere** sustancijaz ez daquijenac (Esk. 216).*

- Zenbatzaile orokorrak. **Guztia** ugari ageri da haren obran barrena, singularrean eta pluralean, dagozkion kasu-markekin; erakuslearekin datorrenean, honen eskuinean kokatzen du **guz-****tia**, batzuetan honen ondoren era enklitikoan erakuslea bera errepikaturik. **Osoa**, **guztia**-ren adieraz erabiltzen du, baina zatiari kontrajarria. **Dana**, bere esanahi etimologikoan izan ezik ez du erabiltzen; hau da, Biblian *Jahweh* agertzen den adieran dakar. Alde bakarra, Jainkoak Biblian lehen pertsonan agertzen duela bere izaera, bera nor den: *Ego sum qui sum*, eta hemen hirugarren pertsonan datorrela; hau da, ez *nazana*, *dana* baizik. Pluralean ez du erabiltzen **danac**, **dirianac** baizik. **Guztiak** eta **dirianac** testuinguru berdintsuetan datoz batzuetan; beste batzuetan, berriz, hura izena ezkerretara duela agertzen da, eta hau bakarrik. Ikus ditzagun adibide batzuk guztietarik:

*Berez da **dana** Jaungoicua, ez inoc emonda (Icas. I, 62).*

*Ta **dirianac** topauco dituzu Jaungoicuagan. **Dirianac** daucaz Jaungoicuac berez. Ta daucaz, bera ameeetan dave-neentzat. Adisquide oso baten condecinoe **guztiac** daucaz Jaungoicuac (Icas. I, 41).*

*Munduban dagozan guizon eta emacume guztiac, entzute andija dauqueenac ta bapere ez dauqueenac, ondasusn andijac dauqueezanac ta ateric ate esquian davizanac, destierruban dagozanac eta tronubetan jarrita dagozanac, **dirianac** bardin estimeetan ditu ta bardin ameeetan ditu Jangoicuac, eurac bardin ameeetan badabee (Esk. 65).*

*Bedeincatu cituban **dirianac**, esanagaz: Azi zaitetz ta gueitu zaitetz (Icas. I, 11-12).*

Luis Baraiazarra